

GOBERNU BATZARRA

2006. 02. 13

Alkatea:	Tolosako Udaletxean, bi mila eta bosteko otsailaren 13an, Gobernu batzarra bildu da, ohizko bilera egiteko, goizeko 8.00etan hasita. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrenda aztertzeke eta erabakiak hartzeke:
Jokin Bildarratz Sorron	
Zinegotziak:	
Olatz Peon Ormazabal	
Jokin Azkue Arrastoa	
Onintza Lasa Arteaga	
Jose M. Vieites Gomez	
Idazkaria:	
Jose Luis Unanue Ugalde	
	1.-Aurreko akta onartzea.
	2.- Inauteritako ekitaldi batzuk Beotibar pilotalekuan.
	3.-Informatika zerbitzuko baldintza plegua onartzeko akordio proposa- mena.
	4.- Plenoko gaia: Eskola Kirolari buruzko adierazpena.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2006ko otsailaren 6an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- Inauteritako ekitaldi batzuk Beotibar pilotalekuan.

Leidor aretoa birmoldatzeko obrak han egin ohi diren Inauterietako hainbat ikuskizun Beotibar pilotalekuan antolatu beharra ekarri du.

Honako hauek, hain zuzen ere:

Otsailaren 18an: "Haur Jaialdia".

Otsailaren 23an: "Hirukideren jaia".

Otsailaren 24an: "Ostiral mehe eguneko jaialdia".

Beotibar pilotalekuak erabilera anitzetarako lizentziarik ez duenez (Leidorrek bai), Jendaurreko Ikuskizunak eta Jolas Jarduerak arautzen dituen legearen arabera, 700 lagunetik gorako edukiera duen barrupean egin nahi diren ikuskizunek Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren baimena behar dute.

Horiek horrela, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- Hiru ikuskizun horietarako baimena eskatzea. Baimen eskatzailea eta ikuskizunen antolatzailea Tolosako Udala izango da eta beharrezkoa den dokumentazioa osatzea (Segurtasun eta Ebakuazio plana, aseguruak, elektrizita-instalazioaren txostena...) bere gain hartuko ditu.

BIGARREN.- Ikuskizun horietako bakoitzak elkarte laguntzaile bat izango dutela jakinaren gainean geratzea.

Haur jaialdia: Aiz Orratz Elkarte.

Hirukideren Jaia: Hirukide Jesuitinak Ikastetxea.

Ostiral Mehe eguneko jaialdia: Arpegi taldea.

HIRUGARREN.- Erabaki honen berri Festa zerbitzuko arduradunari batzordeari eta interesatuei ematea; aurrenekoari onartutako jarduerak legeztatzeko behar diren tramiteak egiteko eskatuz, hain zuzen, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren aurrean.

3.- Informatika zerbitzuko baldintza plegua onartzeko akordio proposamena.

laz Tolosako udalak teknologia berrien inguruko plana martxan jartzeko abiapuntu bezala informatikako aholkularitza zerbitzua kontratatzea erabaki zuen. Urte honetan eman diren pausoen jarraipen gisa, ezinbestekoa ikusten da zerbitzua, behin dagokion epe eta luzapena amaituta, berriro prozedura negoziatu bidez lizitaziora ateratzea. Zerbitzu hau berriro kontratatu beharra ikusten da teknologia berrien inguruan egindako lana jarraitu eta hiritgarrenganako zerbitzua hobetzeko.

Hortaz, klausula administratiboen plegua onartzeko proposamena aurkezten da, prozedura negoziatu bidez aholkularitza eta asistentzi informatiko zerbitzua berritzeko. Pleguaren ezaugarriak honako hauek dira:

- Prozedura negoziatu bidez ateratzen da lizitaziora zerbitzua, ez baitu Administrazio Publikoen ekainaren 16ko 2/2000 Testu Birfundituak xedatzen duen 30.000 euroak gainditzen.

- Hasiera batean, sei hilabetetarako burutuko dan kontratua.
- Zerbitzu honen funtzio eta betebeharrak nagusiak pleguaren III. Ernskinean azaltzen dira, baina laburbilduz honakoak lirateke:
 - . SMS mezularitza zerbitzua martxan jarri. Lehengo fase batean udaletxeko langileekin erabiliko litzateke (plenoak eta gobernu batzarretarako deialdiak egiteko). Bigarren fasean herritarrei hedatuko litzateke zerbitzu hau, informazio zerbitzua ezarri.
 - . UDATE zerbitzurako harraminta informatiko berriak ezarri. Datu base berriak.
 - . Eraikinekin loturak bukatu (Gorosabel eta Kulturetxea).
 - . Wed orrian berrikuntzak jarri. Adibidez, kexak eta iradokizunen formularioa, Voith Gorostidi etxebizitzaren "link" berria egin (cita previa modulua ezarri). DNI karneta berrizatzeko "cita previa" modulua sortu, etab...

Aurrekin guztiak kontuan hartuz eta Giza Baliabideetako sailak egindako txosten teknikoarekin bat etorriz, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Prozedura negoziatu bidez aholkularitza eta asistentzi informatiko zerbitzua esleitzeko baldintza plegua onartzea.

BIGARRENA.- Baldintza plegua arautzen den prozeduran parte hartzeko hiru enpresei gonbidapena luzatzea.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri Giza Baliabideetako zerbitzuari ematea.

4.- Plenoko gaia:

Hurrengo Osoko Bilkuran pasako den gaiaren berri eman da.

. Eskola Kirolari buruzko adierazpena.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jotzen da, goizeko 10etan.

ALKATEA

IDAZKARIA